

**2007ko uztailaren 10ean UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA OHIZKOAREN  
AKTA. 4 Zk.**

---

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako arratsaldeko 18,00tan, Udalbatzarra bildu da.

Alkate Lehendakari jaunak zuzentzen du sesioa eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

BATZAR BURUA: IGOR ITURAIN IBARGUREN

ZINEGOTZIAK :

- 1.-MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAOLA
- 2.- MAITANE ARRILLAGA ALDALUR
- 3.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ
- 4.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE
- 5.- ANTXON GOMEZ LORENTE
- 6.- NAIARA ESNAL HUEGUN
- 7.- JOXEMARI LIZARRALDE
- 8.- BITTOR SANCHEZ MENDIZABAL

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

**1.- Aurreko akta onartu: 2007-VI-16.**

Akta irakurri ondoren, Batzordekideek, aho batez, onartu dute, 2007ko ekainaren 16ko akta, eta adostasun seinale gisa izenpetu egin dute.

## **2.- Udaletxeko kargu eta batzorde-buruak izendatu**

Idazkariak adierazi du Entitate Lokalen antolakuntza eta funtzionamendu arautzen duen erreglamentuak 38. artikuluan xedatu duena betez, jarraian zerrendatutako gaiei buruz erabaki behar dela.

Lehenik, Udalbatza zenbatean behin bilduko den zehaztu behar da. Deus zehazten ez bada, orduan, utxienez, legez, hiru hilabetez behin bildu beharra dagoela ohartarazi du Idazkariak. Hala erabaki da, beraz, hiru hilabetez behin bildu dadila Udalbatza arrunta edo ohizkoa.

**AKORDIOA:** Udalbatzak, aho batez, onartu du udalbatzaren ohizko bilkurak hiru hilabetez behin burutzea.

Bigarrenik, Batzorde informatiboak eratu beharra dago eta batzorde-buruak izendatu. Horretarako, Alkateak zenbait arlo ezberdindu ditu eta arlo bakoitzeko arduradun bat proposatu du. Honako hauek, hain zuzen ere:

- 1.- Hirigintza, azpiegitura eta ingurumena: Igor Iturain Iburguren
- 2.- Nekazaritza: Joxemari Lizarralde
- 3.-Hezkuntza eta turismoa: Maria Jesus Arruabarrena
- 4.- Kirolak eta gazteria: Igor Iturain Iburguren
- 5.- Ogasuna eta giza baliabideak: Igor Iturain Iburguren
- 6.- Kultura eta euskara: Maitane Arrillaga Aldalur
- 7.- Gizarte eta enplegua: Igor Iturain Iburguren

Dena dela, aipatu du, batzorde horietako gai denak asteazkenetan, arratsaldeko 18:30tan, aztertuko direla, gobernu batzarraren bileren ondoren, izan ere, lanaren bolumen txikia ikusirik arinagoa izango bait da funtzionamendu hau.

**AKORDIOA:** Udalbatzak aho batez onartu du arlo horietako batzorde-buru zerrendatutako zinegotzi horiek izendatzea eta batzorde informatiboetan aztertu beharreko gaiak asteazkenetako bileretan lantzea, gaiak sortu ahala.

Hirugarrenik, Udal ordezkariak izendatu behar dira udalaz gaindiko organu kolegiatuetan. Alkateak honako proposamen hau egin du hasiera batean:

- Urola Kostako Mankomunitatea: Igor Iturain Iburguren eta Ander Arrillaga Albeniz
- Gipuzkoako Ur Kontsorzioa: Igor Iturain Iburguren
- Eudel: Igor Iturain Iburguren
- Pagoeta Parkeko Patronatua: Igor Iturain Iburguren eta Antxon Gomez Lorente
- Urkome: Igor Iturain Iburguren

**AKORDIOA:** Udalbatzak, aho batez, onartu ditu udalaz gaindiko erakunde horietarako, udal ordezkari gisa, adierazitako zinegotziak izendatzea.

Laugarrenik, Alkateak berri eman du, zer ebatzi duen Alkate orde, Gobernu-Batzar kide eta eskuduntza-delegazioen inguruan.

Alkate-ordeei buruz, bi Alkate orde izendatu ditu:

- a. Lehen Alkate orde: Maria Jesus Arruabarrena Esnaola anderea
- b. Bigarren Alkate orde: Maitane Arrillaga Aldalur anderea

Izendapen hauek Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira, Alkate Ebazpen gauzatuz izendapen formala.

Tokiko Gobernu Batzarrari buruz, honako kideek osa dezaten ebatzi du:

- 1.- Igor Iturain Iburguren, Batzar burua ( EAJ)
- 2.- Maria Jesus Arruabarrena Esnaola ( EAJ)
- 3.- Ander Arrillaga Albeniz ( EAJ)
- 4.- Mari Karmen Egurza Agirre ( EAJ)
- 5.- Maitane Arrillaga Aldalur ( E.A.E.-A.N.V.)
- 6.- Bittor Sanchez Mendizabal ( E.A.E.-A.N.V.)

Gobernu-Batzarra asteazkenero arratsaldeko 18:30tan bilduko dela argitu du. Batzarkide izango diren zinegotziek ontzat eman dute. Alkate Ebazpen bitartez gauzatu behar dela izendapen hau oroitarazi du Idazkariak.

Bestalde, Alkateak Gobernu-Batzararen alde egin du eskuduntza-delegazioa, Udal entitateen antolakuntza eta funtzionamendu erreglamentuko 43.2 artikuluan oinarrituz, legez berari gordetako arloetan izan ezik. Espreski zehaztu du jarduera eta obra lizentziak Gobernu-Batzararen akordioz erabakiko direla eta baita diru ordainketak ere – 3.000.-eurotik goragokoak diren neurrian-. Eskuduntza delegazio hau Alkate Ebazpen edo Dekretu bidez burutuko da eta Aldizkari Ofizialean argitaratuko, Idazkariak azaldu duenez.

Bosgarrenik, zinegotzi eta alkatearen ordainsariak direla eta, zenbait irizpide ezartzea dagokio Plenoari.

Alkateak azpimarratu du EUDELEk finkatutako irizpideak onargarriak iruditzen zaizkiola. Besteak beste, ondoren zehaztutakoan datza ordainsarien sistematika.

Talde politiko ikuspegitik, talde bakoitzak hilabetero 144,77.-euro jasoko ditu. Hau da, EAJ-k, 1.737,24.-euro urte osorako eta ANV-k ere beste hainbat ( 1.737,24.-euro).

Talde politikoez, aparte, zinegotzi bakoitzagatik, finko bat jasoko dute hilabetero, 57,91.-eurokoa. Alegia, zinegotzi bakoitzagatik urtean 694,92.-euro. Hain zuzen ere, EAJ-PNV-k, 6 zinegotziengatik, urtero 4.169,52.-euro eta E.A.E.-ANV-k, berriz, 2.084,76.-euro.

Zinegotzi eta Alkatearen ikuspegitik, Alkateak funtzionarien 21.maila izango du, hots, 41.825.-euro gordin urtero. Zinegotzi bakoitzak 83.-euroko fijo bat jasoko du hilero – Alkateordeek 111.-euro- eta parte hartzen duen bilera bakoitzeko 22.-euro gehiago.

Proposamen honen alde 6 bozka izan dira, EAJ taldekideenak, eta 3 abstentzio, ANV taldekideenak.

**AKORDIOA:** Udalbatzak, gehiengoz, erabaki du EUDELe zehaztutako irizpideen arabera burutzea talde politiko, alkate eta zinegotzien ordainketak.

### **3.- Santio espaloia zabaltze obrak esleitu**

Idazkariak gogora ekarri du Santio auzoan espaloia luzatzeko obra egiteko kontratazio espedienteari ekin ziola Udalbatzak 2007ko apirilaren 23an. Obra honen exekuzio material aurrekontua 227.557,81.-eurokoa da eta exekuzio epea hiru hilabetekoa. Aldizkari Ofizialean maiatzaren 10ean iragarri ondoren, Kontratazio Mahaia ekainaren 11ean bildu zen eskaintzak aztertzeko. “Limpiezas industriales IRIS” eta “Parques y Jardines Abadiano SA” enpresek “UTE PARQUES IRIS” taldea osatuko dute espreski lan hauek egiteko. Aurkeztutako agiriak aztertuta, frogatuta gelditu zen, baldintza ekonomiko-administratiboen pleguetan zehaztutakoa ekarri zutela. Eskaintza gisa 221.573,05.-euroko exekuzio material aurrekontua aurkeztu zuten. Epea, hiru hilabete. Bestalde, enpresen baliabideak, bai materialak bai giza-baliabideak, egokitzat jo ziren obra hau egin ahal izateko. Horregatik, kontratazio mahaiak aho batez proposamen egin dio Udalbatzari aipatutako enpresa multzoari Santio auzoko espaloia luzatzeko obraren exekuzioa esleitzen zehaztutako prezioan.

Bozketa eginda, legezko bederatzi ziengotzietatik, 6 bozka esleipenaren aldekoak izan dira, EAJkideenak eta 3 abstentzio, EAEkideenak.

**AKORDIOA:** Udalbatzak, gehiengoz, erabaki du UTE PARQUES IRIS enpresa multzoari esleitzea Santio auzoan espaloia luzatzeko obra kontratua, 221.573,05.-euroko exekuzio material aurrekontuarekin – eta kontzeptu guztiak barneratuz 310.767,69.-eurotan- hiru hilabeteko epean.

#### **4.- 2006ko Kontu Orokorra eta Etxebizitza tasatu udal ordenantza**

##### **4.1. 2006ko Kontu Orokorra behin-betiko onartu**

Idazkariak aipatu du Kontu Batzorde Bereziak, 2007ko maiatzaren 22an, erabaki zuela 2006ko Kontu Orokorrari oneritzia ematea.

Kontu Orokorraren edukia laburbildu du Idazkari-Kontuhartzaileak, bi zati ezberdinduz:

a) Batetik, idatzizko Txostena, honako edukiarekin:

- Aurkezpen oinarriak
- Kontu Balantzea
- Emaitzaren banaketa
- Balorazio arauak

b) Bestetik, beste taula hauek:

- Kontuen mugimenduak ( Aktibo barruan: ibilgetuak, zordunak, erosketak eta gastuak; pasibo barruan: oinarritzko finantziaketa, hartzekodunak, salmentak eta sarrerak)
  - Ondare Kontabilitatea eta Aurrekontu emaitzak bateratzea
  - Finantziazio Taulak
  - Galera eta irabazi Kontua ( Zor / Hartzeko; Ekitaldiko emaitza: mozkina)
  - Balantzea ( Aktiboa / Pasiboa)

Kontu Orokorrari dagokion dokumentazioa jendaurrean egon arren udal bulegoetan 15 egunez, ez dela erreklamazio zein oharrik aurkeztu, gehitu du azkenik Idazkariak eta behin-betikotzat onar litekela.

**AKORDIOA:** Udalbatzak, erreklamazio ezean, oneritzia eman dio 2006ko Kontu Orokorrari eta espedientea Euskadiko Kontu Epaitegiari igortzeari.

#### **4.2. Aiako Udal etxebizitza tasatuen udal ordenantzaren behin-betiko onarpen automatikoa**

Alkateak azalpenak eman ditu Aiako Udal Etxebizitza Tasatuen udal Ordenantzaren inguruan. Ezaugarri hauek azpimarratu ditu, besteak beste:

- Kontzeptua: Saltzeko edo alokatzeko prezio mugatua duten etxebizitzak. Sustatu daitezke, bai hirigintza plangintzak horretara espreski xedemandako edo destinatutako lursailetan bai prezio mugarik gabeko etxebizitza erabilerara xedemandako edo destinatutako lursailetan.
- Motak: Bi mota daude:
  - a) Erregimen orokorreko Aiako udal etxebizitza tasatuak;
    - Gehieneko salmenta prezioa: 2 indizea ( erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioarekiko)
    - Gehieneko alokairua: % 2,3 ( erregimen orokorreko udal etxebizitza tasatuen gehieneko salmenta prezioarekiko).
    - Gehieneko diru sarrera: 1,3 indizea ( erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean duden gehieneko diru sarrerekiko).
    - Gutxieneko diru sarrera: etxebizitza sozialak eskuratzeko ezarritakoa
  - b) Erregimen bereziko Aiako udal etxebizitza tasatuak:
    - Gehieneko salmenta prezioa: 1,7 indizea ( erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioarekiko)

- Gehieneko alokairua: % 2,3 ( erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen gehieneko salmenta prezioarekiko).
  - Gehieneko diru sarrera: 1,1 indizea ( erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarrean duden gehieneko diru sarrerekiko).
  - Gutxieneko diru sarrera: babes ofizialeko etxebizitza, alokairuan eskuratzeko ezarritakoa
- 
- Kalkifikazioa burutzeko izapidetza: Organu eskuduna Udalbatzarra da eta prozedurari dagokionez, behin-behineko kalifikazio bat egingo da lehenik – obra lizentzia eskuratuta - eta behin-betiko kalifikazioa. Hau derrigorrezkoa da lehen erabilera lizentzia eskuratu ahal izateko.
  - Kalifikazioaren ondorioak: Eskualdatze prezioa mugatua egongo da, lehen aipatutako “gehieneko salmenta prezioari”, beti ere, “Kontsumo prezioen Indizearekin eguneratuta. Eta lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea izango dute bai Aiako udaletxeak bai Aia Lantzen S.A.-k.

Hasierako onarpena 2007ko apirilaren 23an eman zion Udalbatzak Ordenantza honi eta jendaurrean egon da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2007ko maiatzaren 10ean argitaratuz geroztik, hilabetez. Dena den, ez da alegazio zein iradokizunik jaso. Eta beraz, aipatutako iragarki publikoan ezarritakoari jarraituz eta 7/85 legeko 70.2 artikulua arira, alegazio ezean, behin-betiko onartutzat jo daitekela Ordenantza adierazi du Idazkariak.

**AKORDIOA:** Udalbatzak, alegazio ezean, oneritzia eman dio 2007ko apirilaren 23an onartutako Aiako Udal Etxebizitza Tasatuen udal Ordenantzaren behin-betiko onarpen automatikoari.

## **5.- Alkatearen berri emateak**

### **5.1.- Armendi Gain biribilgunea exekutatzeko Foru Aldundiarekin hitzarmena.**

Alkateak berri eman du uztailaren 5ean izenpetu duela hitzarmena Foru Aldundiarekin GI-2631 eta GI-3710 errepide arteko biribilgunea 251.250.-euroekin finantzia dezan.

### **5.2.- Eusko Tren- Lurralde bus. Ordutegi berriaren negoziatzen.**

### **5.3.- Frontoiaren beirazko itxitura obraren gorabeherak.**

### **5.4. Mañarin Zelai ingururetako lursaila ( 1.744 finka erregistrala) besterendu: salmenta Antonio Mari Iruretagoiena Larrarte jaunari esleitu eta Alkatea ahalmenu eskritura izenpetzeko.**

Alkateak adierazi du Udalbatzak udal jabetzako 2.100 m<sup>2</sup>-ko lursaila saltzea erabaki zuela 2007ko apirilaren 23an. Lursail hau Jabetza Erregistroan 1.744 finka erregistrala da eta 1.293 Tomoan, 41 Liburuan eta 22 folioan dago inskribatua. Espedientea 30 egunez jendaurrean jarri ondoren, Aldizkari Ofizialean maiatzaren 10ean iragarritz, eskaintza bakarra Antonio Mari Iruretagoiena Larrarte jaunak aurkeztu zuen ekainaren 11an, epe barruan, 8.505.-eurotan.

Udalak pleguetan ezarritako lizitazio prezioa ( 4.-euro/ m<sup>2</sup>) gaitzen duenez eskaintzak ( 4,05.-euro) bere alde egin beharra dago salmenta.

Idazkariak gogorarazi du salmenta eskritura publiko bidez gauzatuko dela behinbetiko esleipenaz geroztik bi hilabeteko epean, honek ekarritako gastu eta zergak esleipendunaren kontura izango direlarik.

**AKORDIOA:** Udalbatzak oneritzia eman dio 1.744 finka erregistrala Antonio Iruretagoiena Larrarte jaunari saltzeari 8.505.-euroren truke eta Alkatea ahalmenu du eskritura publikoa izenpetu dezan Udalaren ordezkari gisa.

Bertan esan eta onartutakoak jasota gera daitezten, idazkariak idatzi eta bertaratutakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2007ko urriaren 30ean.

IGOR ITURAIN IBARGURENek

MARIA JESUS ARRUABARRENak

MAITANE ARRILLAGA ALDALUREk

ANDER ARRILLAGA ALBENIZEk

JOXE MARIA LIZARRALDEk

MARI KARMEN EGURZA AGIRREk

NAIARA ESNAL HUEGUNEk

BITTOR SANCHEZ MENDIZABALEk

ANTXON GOMEZ LORENTEk

Itziar Azurtza-Sorrondegi,  
Idazkari-kontuhartzaileak.